



xa **sencillamente** transformar la realidad



# Legegintzako Herri Ekimena

irudia

**Ez diezazutela bizitza zapuztu**

[www.mensajesenredados.com](http://www.mensajesenredados.com)

### HausNarketa

Jende askok etxebizitza duina eskuratzeko zailtasunaz gain, egungo krisialdi ekonomikoak hainbatek etxebizitza galtzea ekarri du. Datu ofizialen arabera, 2007tik –krisialdia lehertu zen urtea- 2011ko hirugarren hiruhilabetera arte **Espanian 350.000 etxe-kaleratze** gertatu dira. Gainera, etorkizunerako aurreikuspenak ez dira hobeak; aitzitik, 2012-13 urteetan etxe-kaleratzeak bikoiztu daitezkeela diote.

Arazoa sakonki aztertuz gero, etxe-kaleratzeek kaltetutako lagunak krisialdiak bortitzen astindutako sektore sozialekoak direla ohartuko gara: lana galdu dutenak, batik bat langabezia luzaroan dabiltzanak, eta hauen artean, babes txikien dutenak: etorkinak edo kide bakarreko familiak.

Bestalde, lana galdu eta etxebizitza galtzeari ondorio larriak dakartzan ustekabeko gertaera erantsi behar diogu: indarrean dagoen etxe-kaleratze prozesuak dioenez, kaltetuak ordaindu ezean etxebizitza enkantean jartzen dute. Enkantean inork ez badu eskuratzen (gehienetan gertatzen dena) akreedoreak -banketxeak- etxebizitza bereganatu dezake tasazio-prezioaren %60 baino ez ordainduz gero. Hori gutxi balitz, kaltetuari bizitza osoan ordaintzeke dagoena erreklamatzeko ahalmena du. Gauzak horrela, lanik eta etxebizitzarik ez edukitzeaz gain, kitatu ezinezko zorra pairatu behar du desjabetuak, eta honek, ezinbestean, gizarte bazterketa dakar.

Egoera lotsagarria da, are gehiago banketxeak neurri handi batean egungo krisialdiaren errudunak direla aintzat hartuz gero. Gainera, jende xumeari legea zorrotz betearazten dioten botere publikoak banketxe horiei milioika euro ematen ari zaizkie euren arazo ekonomikoak konpon ditzaten.

Beraz, egoera larri honek zerbait egitea eskatzen du, bizitza zapuztuta bizi diren milaka familiaren arazoak modu bidezkoan konpontzeko.

### ekintza

Espaniako giza talde askok abian jarri dute **etxea ematea ordainketa moduan, etxe-kaleratzeak etetea eta gizarte alokairua bultzatu nahi dituen Herri Lege Ekimena**.

Honen helburua Espainiako legeak ondorengo kasuetan aldatzea da: etxea ematea ordainketa moduan (hots, etxebizitza ematean banketxearekiko zorra desagertzea), etxea bizitoki ohikoa bada eta hipoteka ez ordaintzearen arrazoia norberaren borondatezko kontrakoa bada kaleratzeak etetea, eta pertsona horientzat gizarte alokairua bermatzea, etxe horretan bertan eta euren diru-sarrerei egokitutako prezioan.

Ekimena Gorte Nagusietara heltzeko gutxienez 500.000 sinadura beharrezkoak dira. Hortaz, **zure sinaduraz laguntzea** da eskatzen dizuguna. Horrez gain, **Herri Ekimen hau beste 5 laguni jakinaraztea**, sinatzeko gonbitea luzatuz. Azkenik, duzun aukeraren arabera, hilabete hauetan abian den **sinadura bilketa honetan parte hartzea** gonbidatzen zaitugu.

Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero,  
[www.quenotehipotequenlaveda.org](http://www.quenotehipotequenlaveda.org)